

Indiako jakiak dastagai

Fronton jatetxean
da Nath Surinder ▶ 3



Akusazio guztiak ukatu dituzte Otamendik eta beste auzipetuek

KONFIDANTZA ▶ Auzitegi

Nazionalaren «zuzentasunean»
konfiantzarik ez dutela esan dute

BABESA ▶ Auzipetuei babesa

ematera ordezkaritza zabala joan
zen Euskal Herritik Madrilerara ▶ 2,3



Ezker-eskuin, Iñaki Uribe, Xabier Oleaga, Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendi eta Marxelo Otamendi auzipetuak, atzean Euskal Herritik elkartasuna adieraztera joandako pertsonaiekin: Arzalluz, Atxaga, Goirizelaia, Lasagabaster, Zabaleta, Karrera, Pujana, Fernandez, Mendiguren, Aranburu, Diez, Elorrieta, Campos, Irigoien, Ferrer, Mintegi, Ereño... ALVARO GARCIA

TOLOSALDEA ▶

Saharako hezkuntza proiektua, aurrera

HITZA Saharara
joateko gonbidatu
dute egun hauetan ▶ 4

ALEGIA ▶



O. ESKITXABEL

Konposizio saria irabazi du Italian Zubillagak

Han irabaztea
«ezagutzera ematea»
dela dio alegiarrak ▶ 7

ZIZURKIL ▶

Ikasleen oztopoak, alkateari ▶ 6

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Ekitaldiz eta aldarrikapenez bete zuten eskualdeko ikasleek atzo Euskararen Eguna

Ipuin kontaketa, trikitilariak, bertsolariak, dantzariak,
pailazoak, konpromiso sinadurak, irratsaioak, jolasak... ▶ 5



Jose M. Karrera Aitzolen. J.SAIZAR

HEDABIDEAK ▶

Otamendik eta besteek akusazio guztiak ukatu dituzte beste behin

Zenbait legak iraun bitartean mehatxua beti hor izango dutela esan zuten atzo Madrilén, eta Auzitegi Nazionalaren «zuzentasunean» ez dutela konfidantzarik

ENEKOITZ ESNAOLA-MADRIL

Auzipetuei, banan-banan, zein delitu leporatzen dizkien azaldu zien atzo Juan del Olmok, Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak —Xabier Alegria, Martxelo Otamendi, Txema Auzmendi, Joan Mari Torreal-dai, Iñaki Uribe, Xabier Oleaga eta Pello Zubiria dira auzipetuak—; auzipetuek, akusazio horiek guztiak faltsuak direla erantzun zioten. Auzipetze autoa jasota, Xabier Alegria ez beste denak kalera atera ziren —Alegria preso dago, eta besteak auzipetuak eta neska-laguna agurtu ahal izan zituen—

Euskal gizartearen ordezkaritza zabalak lagunduta joan ziren, eta autoa jaso ondoren prentsaurrekoa eman zuten, Madrilén bertan. Nabarmendu zuten, «Egunkaria itxia euskararen normalizaziorako funtsezko proiektu baten aurka jotzea izan zen, gizartearen adostasun eta integrazioarako ahalegin kolektibo bikain baten aurka jotzea».

Espainiako Auzitegi Nazionalaren «zuzentasunean» ez dutela konfidantzarik berretsi zuten, beraien euskal gizartearengan dutela konfidantza. Horretaz gain, beraien kontra «akusazio larriak» egin badituzte ere, ez direla ezer egin gabe geratuko nabarmendu zuten, eta «nazioarteko juristen giza eskubideez arduratzen diren erakundeen artea» erakarriko dutela, «hemen zer dagoen ikus dezaten».

Espainiako Gobernuari ere zuzendu zioten mezua: «Estatu-gai batzuetan aldatzeko urratsak egin ditu Gobernu berriak. Baina, zoritxarrez, orain arte behintzat Gobernu horrek ez du jarrera-aldaketarik erakutsi gure Herriko gatazkari dagokionez. Galdetzen dugu ea egunen batean hautsiko ote duen lehengo politikaren jarraitasun itogarria, erabat ulertezina baita demokrazien ikuspegitik». Oraindik indarrean dauden zenbait legak irauten duten bitartean, «beti hor izango dugu mehatxua», gaineratu zuten, lege horiek «Egunkaria-ren itxiera eta beste operazio batzuk» eragin dituztela gogoratu. Eskerrak emanez bukatu zuten atzokoa.



Euskal Herriko alderdi eta kultur pertsonaiek babes zabala jaso zuten atzo Madrilén. ALVARO GARCIA



Atxaga, Karrera eta Otamendi. ALVARO GARCIA



Auzipetuak prentsaurrekoa ematen. ALVARO GARCIA

MARTXELO OTAMENDI ▶ 'EGUNKARIA'-KO ZUZENDARIA

«Auzitegia auzitan jartzea lortu behar dugu; jendea biltzen saiatuko gara»

Joxemi Saizar ▶ Epailearen aurretik pasatu ondoren, beste hainbat komunikabideren artean, HITZArekin ere mintzatu zen Martxelo Otamendi.

Nolako elkarrizketa izan da? Akusazioak benetakoak al diren galdetu dit epaileak eta ezetz erantzun diot. ETArekin zerikusirik ez dudala eta ez naizela elkarte ilegal baten kide izan inoiz esan diot, egin dudana bakarria euskarazko egunkari baten lan egitea dela.

Ikusmin handia piztu dute elkartzatzen adierazi dizueten pertsonaiek? Sekula ez nuen hainbeste argazki eta telebista kamara ikusi inguruan. Eskertzekoa da Euskal Herriko eta Kataluniatik etorritako jendearen elkartasuna. Ordezkaritza zabala izan da. Horrek esan nahi du Egunkariaren etorkizunaz eta guri gerta dakigukenez kezka handia dagoela Euskal Herrian eta Katalunian, ez baka-

rrik Egunkariaren itxieraren kontra, gu epaitzearen kontra ere badaudela.

Hemendik aurrera zer? Lanean jarraituko dugu su hain piztuta edukitzeko eta akusazioa desmontatzeko. Auzitegia auzitan jartzea lortu behar dugu. Horretan lagundu nahi duen gero eta jende gehiago biltzen saiatuko gara. Abokatuek ez dute aurreikusten epaiketa 2005ean zehar izatea. ◀

ERREAKZIOAK ▶

XABIER ARZALLUZ
EJA-KO LEHENDAKARI OHIA

«Lehen ere egona naiz Auzitegi Nazionalan, besteak beste sozialistak defendatzen. Gaur sozialistak aurrean ditugu; uste nuen sozialistek Auzitegi Nazionala kendu egingo zutela, baina txakurrak agintzen segitzen dute, beste lepoko batekin».

JONE GOIRIZELAIA
SOZIALISTA ABERTZALEAK

«Operazio orokor bateko beste operazio bat izan da, Euskal Herriaren kontrakoa. Babesa ematera etorri gara Madrilera».

B. LASAGABASTER
EUSKO ALKARTASUNA

«Hau ez da prozesu judiziala, oinarrikerik ez dagoelako. Prozesu politiko baten aurrean gaudu».

PATXI ZABALETA
ARALAR

«Gaurko argazkiak asko sinbolizatzen du. Elkartzatzen auzitegiaren kontrako proiektu oro zapaltzera doazleko».

BABESA ▶

Politikagintzako eta gizarte mailako lagun asko joan ziren atzo Madrilera, Egunkaria-koei babesa ematera. Hauxe zerrenda: Xabier Arzalluz, Jone Goirizelaia, Martiri Aranburu, Begoña Lasagabaster, Juan Jose Pujana, Antton Karrera, Patxi Zabaleta, Iñaki Irazabalbeitia, Merxe Kolina, Leire Ereño, Imanol Murua, Jose Elorrieta, Rafa Diez, Jesus Uzquidun, Josu Juaristi, Xabier Mendiguren Bereziartu, Koldo Tellitu, Antonio Campos, Jesus Garmendia, Jonan Fernandez, Tere Irastorza, Laura Mintegi, Bernardo Atxaga, Joan Mari Irigoien, Mariano Ferrer, Patxi Meabe, Paulo Agirrebaltzategi, Manolo Pagola, Juan Miguel Arregi, Joan Tarda, Vicent Partal, Monica Sabata, Gabriela Serra eta David Fernandez.

NATH SURINDER OBEROL ▶ SUKALDARIA



Xabier Arzalluz, Aranburu eta Goirizelaiaren artean. ALVARO GARCIA

Arzalluz auzipetuen artean

Auzipetuen agerraldiak hedabide askoren arreta sortu zuen, eta Arzalluzen hitzen bila jo zuten gehienek

ENEKOITZ ESNAOLA / MADRIL

Auzipetuei babesa ematera Madrilerako joandako ordezkariak protagonista nabarmen bat izan zuen atzo: Xabier Arzalluz. EAJko lehendakari ohiak, Auzitegi Nazionalaren atarira iritsi aurretik esan zuen adierazpen «poto-loak» egiteko prest eta gogoz zegoela, eta ez zuen hutsik egin.

Auzitegiaren atarira auzipetuen atzetik iritsi ziren Euskal Herriatik joandako politikariak, sindikatuetako ordezkariak, idazleak eta gizarte mugimenduetako kideak, baina auzitegi iritsi orduko hogeitabat kazetariko oldea Xabier Arzalluzengana inguratu zen. Azken aldiz auzitegi hartan 1976an izan zela gogoratu zuen Arzalluzek: abokatu bezala joan zela orduan, eta orain, ia 30 urte geroago, berdin-berdin ikusten duela auzitegia, eta atzo bertan hedabide gehienek jaso zituzten adierazpenak egin zituen gero: Espainian demokraziaren kalitatea oso eskasa dela eta Auzitegi Nazionala frankismo garaiko TOP Ordena Publikoko Tribunalen parekoa dela. Azkenik, PSOEri horrelako jazarpena behingoz bertan behera uzteko eskatu zion.

Kazetariak eta euskal ordezkariak bildu ziren inguruan, farola bat zegoen, «Psicoanalistas para todos» esaldiarekin, eta haren inguruan argazki bereziak geratu ziren behintzat, oroinenerako.



Marbelo Otamendi pozik zegoen jasotako elkartasunarekin. A. GARCIA

Auziperatuak Juan Del Olmo epailearen aurretik igaro ziren gero, auzipetze autoa haren eskutik jasotzera. Tramite kontua azkarra izan zen, eta auzitegitik atera eta gero Zurban hotelean eman zuten prentsaurrekoa auzipetuek eta haien babesa adieraztera joandako eragileek.

Hotelera iritsi orduko, berriz, beste ezustekoa. Izan ere, aurreko egunean, Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (AVT) batzarra egin zuen baita hartan bertan, eta elkarte horretako ordezkari Daniel Porterok gutuna idatzi zien atzo prentsaurrekoa eman zuten euskal herritarrei. Originala Arzalluzentzat utzi zuen, eta kopia banatu zizkieten gainerakoei. Bere aitaren eta beste hainbaten hilketen atzean, «beste borroka batzuk bideratzen zenuztuenak» zeudela zioen, *Egun-karia* aipatuz, eta «justizia» egin behar dela nabarmenduz. ◀

«Tolosako jendeak oso ongi sentiarazi nau, ez naiz atzerritar sentitu»

Nath Surinder Fronton jatetxean jaki indiarrak prestatzen dihardu egunotan Titirijai festa aitzaki hartuta

MADDI SOROA

Nath Surinder Oberol sukaldaria da. New Delhikoa —India— da izatez, baina Bartzelonan bizi da duela 30 urtetik, indiar jatetxea baitu bertan. Egun hotan, Fronton jatetxean jaki indiarrak prestatzen dihardu.

Zertan ari da Katalunian bizi den indiarra Euskal Herrian?

Forum 2004ean Tolosako Roberto Ruiz —Fronton jatetxeko sukaldaria— ezagutu nuen eta Tolosara etortzeko proposamena egin zidan Titirijai dela aprobexatuz.

Zergatik sukaldari eta ez titiritero, adibidez?

Txikitatik gustatu izan zait sukaldarian ibiltzea. Helduaroan ere, ostalaritzan egin dut beti lan. Gustuko dut sukaldaritza.

Zer ez da inoiz falta zure plateretan ?

Beti jartzen dut zelantzia edo gengebre espeziatetik pixka bat. Zelantzia zapore ona ematen du eta gengebrea oso ona da osasunerako.

Behin ere prestatuko ez zenukeen platera?

Ez nuke behin ere txerri edo behi haragirik prestatuko. Bestela, edozer, jaki greziarrak, Txinakook...

Mania edo ohitura bereziren bat bai sukaldarian ?

Sukaldaria sartzen naizen bakoitzean egurrezko zerbitzu ukitu eta indiarron errezoa egiten dut. Bestalde, beti daramatza gainean zilarrezko pultsera eta lepoko sakratuak.

Nolakoa da indiar sukaldaritza?

Erabat begetarianoa da, ez dugu ez haragirik, ez arrainik, ez arrautzik jaten. Dillista piloa jaten dugu oso ona baita hortzetzat. Espinakak, garbanzuak eta gazta asko ere jaten dugu. Oso pikante jaten dugu dena, espezia askorekin.

Indiako zein plater gomendatuko zenuke?

Tandoori chicken da indiar sukaldaritzako jakirik tipikoena. Buztinezko ontzietan oilasko puskak erretzen dira labean.

Nolako esperientzia izan da Tolosakoa?

Bihotzez esaten dizut hemen bizi nahiko nukeela. Jatetxe in-



MADDI SOROA

diarra irekitzeko asmotan nabil. Tolosako jendeak oso ongi sentiarazi nau, oso harreman beroa izan dut hemengo jendearekin eta ez naiz inongo mo-

mentutan atzerritar sentitu hemen.

Zein jaki gustatu zaizu ?

Babarrunak eta arroz esnea oso goxoak dira!

TOLOSALDEA GOIMAILAKO L. H. INSTITUTUA

FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat) 2004/05

KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA - KATALOGO MODIULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
-Zerbitzu telematikoen aplikazioak (komercio-Internet)	20	04-12-13	18-21
- Fresadora programazioa CNC	40	05-01-10	18-21
- Data basea (Access)	30	05-01-10	18-21
- Lanaren antolaketa eta kontrola	10	05-01-10	18-21
- CAD 3D Modelatua eta planoak (SOLID EDGE)	30	05-01-12	18-21
- Galdaragintza eta tratatuaren garapena	60	05-01-12	18-21
- Kalitatea	65	05-01-17	18-21
- Mekanikako industriaren Seguritatea	40	05-01-17	18-21
- Web orrien diseinua (Aplikazioetako instalazio proz.)	80	05-01-17	18-21
- Análisis kontablea	85	05-01-17	18-21
- MIG/MAG soldadura horizontal egoeran	50	05-01-17	18-21
- Galdaragintza eta tratatuaren garapena (Lantec)	60	05-02-14	18-21
- Fresadora prestatze eta programazioa CNC	46	05-02-16	18-21
- Word (textu kudeaketa)	30	05-02-16	18-21
- Soldadura a tope elektrodoz	80	05-02-16	18-21
- CAD 2D (AUTOCAD 2005) (maila aurreratua)	40	05-02-16	18-21
- Berokuntza instalazioen muntaiak	40	05-02-21	18-21
- Automatismo pneumatiko eta elektroneumatikoak	40	05-02-21	18-21
- Hidraulika sistema automatikoak	30	05-02-21	18-21
- Automatismo elektroteknikoak	40	05-02-21	18-21
- Power Point (Aurkezpenak)	30	05-04-18	18-21

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

GIZARTEA ▶

Saharako hezkuntza proiektuak aurrera darrai

Proiektuaren bigarren fasearekin jarraituko dute eskolak berritzeko; Saharako kanpamentuetara gonbidatu dute HITZA, bertako egoera ezagutzeko



Atzo arratsaldean eskualdeko 15 lagun abiatu ziren Saharara. J.SAIZAR



El Aaiungo zazpi eskola berrituko dituzte emandako laguntzekin. HITZA

INIGO TERRADILLOS

Pasa den apirilean, Aste Santuko opor egunetan Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak Saharako kanpamentuetan izan ziren udan euren etxeetan izandako umeen familiak bisitatzen. Baina, horretaz gain, hezkuntza proiektu bat jarri zuten martxan. Proiektu honekin, El Aaiungo zazpi eskola zaharberritzea izan dute helburu.

Lehenengo faserako 12.000 euro bildu zituzten elkartekoek Tolosako Laskorain ikastolarekin batera. Beraz, haurrei eta familiei bisita egiteaz gain, El Aaiungo gobernadorearekin eta zazpi eskoletako zuzenda-

riekin ere izan ziren eurei pertsonalki hezkuntza proiekturako bideratuko den dirua eskaintzeko.

Berriro ere, atzo abiatu ziren Tolosaldeko hamabost lagun, bertako familiei bisitan eta nolako egoeran bizi diren eta zer behar dituzten ikustera.

Hamabost lagun hauen artean Joxe Manuel Agirre Tolosaldea Sahararekin elkarteko koordinatzailea joan da elkarteko beste kide batekin, Laskorain ikastolako irakasle eta ordezkari den Kepa Goikoetxearekin eta Yurre Peñagarikano Tolosako zinegotziarekin batera. Hauen helburua, apirilean martxan jarri zen proiektuak izan dituen etekinak aztertzea

izango da eta horretarako bertako eskolak bisitatuko dituzte. Proiektuarekin jarraitzeko, hau da, eskolak zaharberritzeko 10.000 euro emango dituzte bisitaldi honetan elkartekoek, aurrekoan bezala, agintari eta ordezkariak eskura emango zaielarik. Horretarako, Laskorain ikastolan ekitaldi desberdinak egin dituzte diru bilketarako eta Tolosako Udalak eta beste hainbat herritarrek emandako laguntzekin osatu da diru kopurua.

Proiektua ikustera joan direnez gain, gainontzekoak haurrei bisitan joan dira eta ez soilik Tolosaldeko, baita Euskal Herriko beste hainbat herrietatik ere, puntu desberdinetan

eratzen joan diren elkarten laguntzaz.

HITZA ere saharan

Bigarren fase honetarako HITZA gonbidatua izan da Tolosaldeko komunikabide bezala proiektu honen nondik norakoen berri izateko. Horrela, atzo abiatu zen HITZAko kazetaria Tolosaldea Sahararekin elkartekoekin, ikastolako ordezkariarekin eta Tolosako zinegotziarekin batera Saharako kanpamentuetara. Beraz, bertan datorren osteguna bitarte izan ondoren eta bertako egoeraz jabetu eta gero Tolosaldeko eta Leitzaldeko herritarrek aukera izango dute HITZAREN bi-

LANAK ▶

Apirilean martxan jarri zen hezkuntza proiektuarekin jarraituko dute Tolosa Sahararekin elkartekoek El Aaiungo eskolak berritzeko.

LEHENENGO FASEA

▶ 12.000 euroko laguntza eman zuten Aste Santuan egindako bisitan Marboak 8 eskola, Bujari Mohamed eskola, Al-Yadida 61 eskola eta Said Sgayer eskola berritzeko.

BIGARRREN FASEA

▶ Lehenengo faserako emandako laguntzek izan dituzten ondorioak aztertzeaz gain, 10.000 euroko laguntzarekin joan dira Um-Drega eskolan, Kordoba eskolan eta Kantabria eskolan egin behar diren berrikuntzetarako.

tartez sahararren bizimodua hobeto ezagutzeko.

Euskal karabana abian

Urtero bezala, abian da Sahararen aldeko euskal karabana: Piztu Itxaropena izeneko proiektua. Karabana hau Saharako Herriarekiko Elkartasunerako Euskal Elkarteek antolatuta dute, Euskal Fondoaren Sahara Koordinazio Unitatearen laguntzarekin. 2005eko urtarrilaren 12an amaituko da eta ikastoletan, elkartean zein udalategian eman ahaliko da janaria. Hegaluzea oliotan eta azukrea ematea proposatzen dute. Kanpaina honetan lagundu nahi dutenek eta zalarzarrik badute 619 029648 telefono zembakira hots egin dezakete.

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honetekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

SHANTY KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

EUSKARAREN EGUNA ▶



Ibarrako Uzturpe ikastola. Gari Uranga Realeko jokalaria ibartarra Uzturpe ikastolako ikasleekin solasean aritu zen atzo arratsaldean. OLAJA ESKITXABEL



Tolosako Hirukide ikastetxea. Euskararen Ikasle Batzordeak irratsasio berezia egin zuen. Euskara gora, bihotzetik ahora izan zuten lelotzat, atzo, ikastetxean. IMANOL GARCIA

Euskaraz bizi, egunero

Ekitaldi eta aldarrikapenez beterikoa izan zen atzoko Euskararen Eguna Tolosaldeko eta Leitzaldeko txokotan

ERREDAKZIOA

Ekitaldiz eta aldarrikapenez beterikoa izan zen Euskararen Eguna Tolosaldeko eta Leitzaldeko txokotan. Esaterako, Aitzol Udal Euskaltegiko ikasleek eta irakasleek *Kondoi bakoitzak bere istorioa dauka* Joxemari Karrereren ipuin kontaketaekin ekin zioten egunari. Segituan, ikastetxeek hartu zieten lekukoa Aitzolekoei. Tolosako Immaculadaren, adibidez, euskararekin loturiko ekitaldiak egin zituzten, goiz osoan.

Tolosako Samaniego ikastetxean Euskararen Aldeko Manifestua irakurri zuten atzo goizean ikasleen, irakasleen, gurasoen, sukaldeko langileen eta begiraleen ordezkari banak: «*Euskara, euskara, jalgi hadi mundura* mezua zabaldu nahi izan dugu, euskararen egungo egoerari erreparatuz, aurrera begira behar dituen babesa eta haren aldeko kementa azpimarratuz». Arratsaldean, Asvineneak itxuraberritu duen *Mantto* maskotari ongietorria egin zioten Samaniego-koei, txalapartariak, trikitalariak, bertsolariak eta dantza-

riek lagunduta. Poxpolo, Moko eta konpainia pailazoan saioarekin ere gozatu zuten.

Tolosako Hirukide ikastetxean, bestalde, irratsaio berezia eskaini zuten Euskararen Ikasle Batzordeko neskek. Juan Garmendia etnologo tolosarra eta Juan Kruz Igerabide idazle adunarra elkarriketatu zituzten. Igerabidek euskararen babesean gurasoen lana oso garrantzitsua dela eta izan dela azaldu zien ikasleei. Era berean, «euskaraz egunero bizi» behar dela adierazi zuten, tinko. Haur Eskolakoek eta Haur Hezkuntzakoek marrazkiak eta kantak landu zituzten. Lehen Hezkuntzakoek ere parte hartu zuten festan: euskal jolasetan zuten ziren, gaztain jatea izan zuten, euskal kantak eta dantzak... *Euskara gora, bihotzetik ahora* izan zuten lelotzat.

Tolosako Laskorain Ikastolan ere guztiak egin zuten bat egun osoko jaiarekin: *Argitxoren* 118. urtebetetzearen ospakizuna, bertso saioa, jolasak, kantak, ipuin kontaketa, Emeterio Zaldibia ikastolako zuzendari ohiaren bisita, jokoak, gaztain jatea... Jai giro horretan

egin zuten ere euskararen aldeko konpromiso sinadura; Kontseiluarekin elkarlanean, ikastolako partaide bakoitza euskaraz hitz egiteko konpromisoa sinatzea gonbidatu dute. «Hizkuntza eskubideak, eskubide urraketak eta norbanakoaren konpromisoak izan dira nerabeak, irakasleak eta langile ez irakasleak elkarrenganatu dituztenak. Aitortzen zaizkigun hizkuntza eskubideek betebeharrak ere baitakarzkituzte: euskaraz bizitzea».

Ibarrako Uzturpe ikastolan ere ospatu zuten eguna. Bisita berezia jaso zuten, gainera. Gari Uranga Realeko jokalaria ibartarra ikasleekin izan zen.

Villabonako Fleming ikastetxean *Kontrapas* kanta abestu zuten jolaslekuan, borobil handi bat eginaz. Haur Hezkuntzakoek irratsaio berezia eskaini zuten. Herriko jolasak ere egin zituzten eta, bukatzeko, kalejira. «Gure maskota Xaxi, pozik, globoekin azaldu zaigu».

Areson, bestalde, bihar egingo dute Euskararen Eguna. Festa egun batekoa izan daiteke; baina euskaraz bizitzea, berri, egunero beharko luke.



Tolosako Laskorain Ikastola. Euskararen aldeko norbanakoaren sinadura ekitaldi jendetsua egin zuten, jai giroan. LEIRE MONTES



Tolosako Aitzol Udal Euskaltegia. Joxemari Karrereren *Kondoi bakoitzak du bere istorioa* kontaketa jarriratu zuten. JOXEMI SAIZAR

ARAMBURU
Salgai (Irura), 100m²-ko pisua Nagusia kalean. Bajora aukeran.
Salgai (Tolosa), Pisua handia Gorosabel 40ean.
Salgai (Tolosa), Pisua altua igogailuarekin Nafarroa Etorbidean. 49.000.000 pta.
Salgai (Tolosa), Pisua igogailuarekin Larramendi kalean. 30.000.000 pta.
Salgai (Tolosa), Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².
Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Erremontari kalean. Pizzeria edo bokokategia jarzeko egokia.
Alokatzeko (Tolosa), Garaia alokatzen dira Tolosako leku ezberdinetan.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

"GURE BASERRITAREN PRODUKTUEZ OSATURIKO SASKIAK AUKERAN"
LUR-LAN
LUR-LAN Baserritar Elkarte
Hernandorena kalea, 11 • 20159 ZIZURKIL
Tel.: 943 69 20 54 • Faxa: 943 69 44 83
Posta elektronikoa: lurlan@euskalnet.net

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurrira
zuhazki
Zurgindegia
JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ
Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, I Txarama auzoa • 20491 Leaburu

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Berastegi-Elduain. Medikua:
68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldeia. Osasun etx.: 672411

Ikaztegijeta. Medikua: 65 33 29

Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amarozen dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz, M. L. Amaro
zuzunera 9 (Tolosa). 67 51 18.
Erbiti. Lizarraga, 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publi@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22

anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldeia. 687 41 00 32.

ibarraldeia@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldeia. 687 41 01 18.

leitzaldeia@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako
sukaldaria behar da
asteburuetan lan egiteko. 943
69 19 33.

Urne zaintzailea. Bi ume
zaintzeko emakumea behar da.
615 72 73 84.

Irakaslea. Lenguaje eta
matematika klase partikularrak
emateko irakaslea behar da,
Batxilergo azken mailan. 639
96 71 30.

18/98 SUMARIOA ▶

Zigor eskaerak zehaztu ditu Fiskaltzak

12 eta 15 urte bitartean eskatu ditu Enrique Molina fiskalak eskualdeko sei auzipetuentzat; udaberrian da epaiketa

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Enrique Molina fiskalak 12 eta 15 urte bitarteko espetze zigorrak eskatu ditu 18/98 sumarioan inputatutako eskualdeko sei herritarrentzat (Nekane Txapartegi eta Mikel Egibar zizurkildarrak, Jokin Gorostidi

eta Mario Zubiaga tolosarrak eta Joxe Mari Olarra eta Jexux Mari Zalakain villabonatarak) eta guztiei erakunde armatuko kide izatea egotzi die. Guztira, 62 lagun daude inputatuta makrosumarioan; instrukzioa Garzon epaileak gidatu du, eta hainbat auzi daude atal ezberdinetan banatuta: *Egin* eta en-

presek osatzen dutena, Xakirena, eta Ekinek eta Joxemi Zumalabe fundazioarena.

Auzitegiko iturriek agertu dutenez, datorren udaberrian egingo da epaiketa, eta auzipetuta hainbeste jende dagoez, Madrilgo Casa de Campo-ko eraikin batzuk atonduko dituzte han egiteko.

ZIZURKIL ▶ MUGIKORTASUNA



Ikasleek oztopoak eta horiei emandako irtenbideak azaldu zizkieten udal ordezkariari. IMANOL GARCIA

Ikasleek klasera oinez joateko dituzten oztopoak azaldu dizkiote Udalarari

Otañoko ikasleek alkatearen eta udaltzain buruaren bisita jaso zuten

IMANOL GARCIA

Eskolara Oinez egitasmoaren baitan, Pedro Mari Otañoko ikasleek eskolako bidean aurkitu dituzten oztopoak eta hauek gainditzeko proposamenak aurkeztu zizkieten Marian Lazkano alkateari eta Anjel Zubizarreta Udaltzaingo buruari.

Eskolara Oinez eskola eta Udalararen arteko lanketa da. Herri guneetan bizi diren haurren arazoetako bat kalera ateratzeko pertsona heldu baten

laguntza behar dutela da. Nahiz duten lekura joateko autonomia eta askatasun falta izan ohi dute. Egitasmo honek bi helburu ditu: eskolarako bidea seguruagoa egitea, eta gurasoak seme-alabak eskolara oinez joaten uztea, autoen erabilera murriztuz eta bizi kalitatea eta ingurumenaren alde eginez.

Honen baitan, eta Ainhua Azpeitia Nekazaritza eta Ingurumen teknikariak proposatuta, LH3, 4, 5 eta 6ko ikasleek etxetik eskolara oinezko ibilbidea

aztertu zuten, irakasleak lagunduta. Hiru talde osatu zituzten, eta bakoitza auzo bate-tik abiatu zen: Ubare, Pagamurño eta Akezko. Bertan aurkitutako oztopoak identifikatu eta irtenbideak proposatzea zen xedea, eta horiek aurkeztu zizkieten alkateari eta udaltzain buruari; besteak beste, espaloietan aurkitutako zuloak, farolak eta trafikoa seinaleak espaloietan izatea, autoak espaloien gainean aparkatuta egotea eta zebra biderik ez izatea leku jakin batzuetan. Horrekin batera, beharrezko neurriak hartzea proposatu zuten: espaloiak konpontzea, zebra bideak margotzea... «Orain Udalarari tokatuko zaito lan egitea», azaldu zien Lazkano alkateak, ikasleei bere lanarengatik eskerrak eman ondoren.

ALKIZA ▶

Aiztondo rallyko argazki erakusketa

Aiztondo II. Argazki Rallyaren erakusketa zabalduko da bihar Alkizako Kultur Etxean. Asteazkenera arte izango da zabalik ondorengo ordutegian: 11:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

VILLABONA ▶

'Pinotxo' filma euskaraz Gurea aretoan

Udal Kultura Batzordeak antolatuta, bihar *Pinotxo* filma ikusi ahalgo da Gurea aretoan. 17:00etan hasiko da eta 2,5 euro balio ditu sarrerak. Haurrei zuzendutako filma da eta euskaraz emango da.

IRURA ▶

Euskaltel Peñaren aurkezpena

Gipuzkoako lehen Euskaltel Peña aurkeztuko da gaur eguerdian Irurako Enara tabernan, 13:00etan. Aurkezpenean Miguel Madariaga, Julian Gorospe eta zenbait txirindulari izango dira.

ALKIZA ▶

Haurrentzat zinema doan Kultur Etxean

Gaur haurrentzat zinema emanaldia izango da Kultur Etxean. 17:00etan hasiko da emanaldia eta doan izango da. Filmaren izenburua ez dute argitu antolatzaileek, sorpresa eman nahi baitute.

VILLABONA ▶

'Lumane'-ren lehen zenbakia banatuko da

Gaur eta bihar banatuko da Amasa eta Villabonako historia jasotzen duen *Lumane* aldizkariaren lehen zenbakia. Musika izango da ale honetan jorratuko den gaia. Aldizkaria eskuratu daitekeen okindegi eta prentsa dendak: Kixubi, kale Nagusiko Labezain, Arroako Labezain, Ogi.goxo, Kazetaria, Roteta, Larrea eta Mirari.

NATURAL - NATURALAK

- Era naturalean eginak
- Gaztak, yogurtak, txorizokoak, odolkiak eta beste hainbat produktu.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTUAK
Mahala baserria - 20491 LEABURU • Tel.-Faxa: 943 673 499 • Tel. Mug.: 689 805 633

ALEGIA ▶ MUSIKA

Etxetik mundura, haztamuka

Castelfidardoko (Italia) Nazioarteko Eskusoinu Lehiaketan konposizio onenaren saria lortu du Andoni Zubillaga alegiarrak aurkeztutako fantasiarekin



Andoni Zubillaga alegiarrak oso pozik agertu da sariarekin. ©,ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Interneten eskusoinu lehiaketen inguruko informazioa bilatzen ari zela izan zuen Andoni Zubillaga alegiarrak, Castelfidardoko (Italia) Nazioarteko Eskusoinu Lehiaketako konposizio lehiaketaren berri: «Lehiaketa hori oso ezaguna da soinu-joleen artean; munduko soinu-jole onenek hartzen dute parte. Baina konposizio mailan lehiaketa egiten zenik ez nekien».

Lehiaketako oinarriak irakurri eta buru-belarri «konposizio txukun bat» egiten jarri zen Zubillaga. Maiatzean izan zuen lehiaketaren berri; irailaren 15erako aurkeztu behar ziren

lanak: «Urriaren amaiera iritsita eta inolako informaziorik ezean, lehiaketaz ahaztu egin nintzen. Azaroaren 3an italiaraz gutun bat bidali zidaten aurtengo 29. edizioako Nazioarteko Lehiaketako Konposizio Lehiaketako irabazle nintzela esanez. Zur eta lur geratu nintzen».

Lehiaketako epaimahaia eskusoinuaren alorrean «oso kualifikatua» dela azaldu du Zubillaga; zentzu horretan, alegiarraren konposizioa aukeratzeko «konfidantza» ematen diola adierazi du. Gauzak horrela, eta saria irabaztearen garrantziak ohartzen den arren, «oraindik izan dezakeen eragina neurtuezina» dela

ANDONI ZUBILLAGA ▶ KONPOSITOREA ETA AKORDEOI IRAKASLEA

«Castelfidardoko Lehiaketako saria irabazteak akordeoi munduan ezagutzera ematea suposatzen du»

«Eskusoinuak eskaintzen dituen aukera zabalak landu ditut *Haztamuka* konposizioan»

azaldu du. «Sari honek, akordeoi munduan ezagutzera ematea suposatzen du», azaldu du. 1.500 euroko sari ekonomikoaz gain, konposizioa Pragako Rondo argitaletxeak argitaratuko du; Lehiaketako antolakuntzak, bestalde, Europako goi mailako kontserbatorioetan (Londres, Mosku, Kiev, Paris...) eta Nazioarteko Lehiaketetan zabalduko du alegiarraren lana. Horretaz gain, datorren urteko edizioan «nire lana derrigorrezkoa izango da Lehiaketan parte hartzen duten soinu-joleentzat», azaldu du Zubillagak, oraindik sinestu ezinik.

Etxetik mugitu gabe leku guztietan entzun ahal izango da, beraz, konpositore alegiarraren lana: «Konposizio mailan eta gauza askotan bezala, bideak irekitzea, ezagutzera ematea da garrantzitsua eta sari honek horretan laguntzea espero du», azaldu du. Azken finean, «hartuemanak sariak lortzearen harira iristen dira, gehienetan», gehitu du.

Saria lortzearen harira, «oso motibatuta eta lanerako gogo gehiagorekin» dagoela azaldu du: «Nire eskematik, orain arte lan egin dudan eremutik, ateratzen den zerbait da».

Castelfidardoko saria «orain arte lortutako saririk garrantzituena bada ere, ez da bakarra». 2002an Tolosako Musika Bandak antolatutako konposizio lehiaketan entzulearen saria lortu zuen, esaterako. Hainbat moldaketa ere egin ditu.

Ordenagailuaren aurrean

Basetti akordeoi bitartez 5-8 minutu bitarteko iraupena du Zubillagak Nazioarteko Lehiaketa

ketara aurkeztutako konposizioak: «*Haztamuka* (tanteando) izeneko fantasia bat egin du; erritmo aldaketa, kontraste melodiko eta efektu asko ditu. Eskusoinuak eskaintzen dituen aukera zabalak landu ditut».

Konposizioa «zailtasun handikoa» izan arren, maila horietan mugitzen diren soinu-joleentzat gauza zailarik ez dagoela azaldu du.

Lan egiterakoan frogas asko egiten dituen horietakoa da Andoni Zubillaga; eta lana ordenagailuaren aurrean egiten du, gainera: «Teknologia berriak hor daude eta erabiltzen jakitea ezinbestekoa da», azaldu du alegiarrak.

Konpositore izateaz gain, Altsasun musika irakasten du Andoni Zubillagak; bertan ere, teknologia berriak erabiltzen ditu alegiarrak bere ikasleei eskolako ematerakoan. Torrelavegako Nazioarteko Eskusoinu Lehiaketan izan ziren pasatu den asteburuan eta bertan egindako lanarekin eta lortutako sariarekin «emozionatuta» dagoela azaldu du. «Lan txukun bat aurkeztearen gure helburua eta sariak ere iritsi direla ikusi dugu; oso gustura gaudela egindako lanarekin».

Datorren urteko urrian Castelfidardora joango da Andoni Zubillaga, saria jasotzera; bertan, lauzpabost egun pasatuko ditu; eta bere konposizioa munduko soinu-jolerik hoberearen eskutik entzuteko aukera izango du. Momentu hori iristeko irrikitan agertu da.

Zorteduna kontsideratzen da Zubillaga: «Egindako lanak onarpen bat izatea eta jendeak esker ona agertzea oso garrantzitsua da aurrera jarraitzeko».

IBARRA ▶

Olarreaga kaleko bizilagunen haserre

Pasa den asteazkenean, abenduaren 1ean, sutea gertatu zen Olarreaga kaleko etxebizitzan. Bertara, suhiltzaileak ezezik Ertzaintza ere gerturatu zen; orduko itzalita zegoen sua. Sua gertatu zen etxebizitzan bizi direnek «sua manta elektrika baten ondorioz» suertatu zela adierazi zuten. Gertakarietako kezka agertu dute bizilagunek, «aurretik ere antzeko gertaera bitxiak eman direla» azaltzearekin batera. Bizilagunen bertsioa dudatan jarri dute bizilagunek; horretaz gain, Ertzaintzako langileek gertaera argitzezkoan agertu zuten («interes eza» salatu dute: «Etxebizitzara igo ere ez ziren egin», azaldu dute.

ORENDAIN ▶

Kultur ekitaldiak arratsaldean eta gauean

Orendaingo Kultura Batzordeak ekitaldi ugari antolatu ditu gaurko; 18:00etan Zirika Zirkus taldeak haurrentzako ikuskizuna eskainiko du udaletxeako areto nagusian. Bertan, malabareak, magia, akrobazia... ikusteko aukera izango dira. Ondoren, askaria eta gaztain erreteak jateko aukera izango dute Eltxo elkartean bertaratzten direnek. 20:30ean, Bidearteko Kaietan, prestatutako afaria izango da Eltxo elkartean: mondejuak, ardikia eta gaztain erreteak.

ELDUAIN ▶

Lau bertsolari herriko pilotalekuan

Andoni Egañak, Nerea Elustondok, *Loidisaletxe* eta Bixente Gorostidi amezkatarak bertso saioa eskainiko dute bihar Elduaingo pilotalekuan. Gai jartzaile lanetan Gorka Tolosa ariko da. Saioa, 18:00etan hasiko da; sarrera doakoa izango da.

iragarki laburrak ▶

Vital Kutxa. 70 lanpostu libre. Sarrerak laster. Matrikulazio irekia. Informazioa doan. 943 65 01 93 [telefonora deitu](http://www.vitalkutxa.com).
Haur Hezkuntza. Plaza libreak

haurtzaindegi publikoetan, haur eskoletan. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Gidariak. Laster sarrerak udatean eta Eusko Jaurlaritzan. Informazioa

doan. 943 65 01 93.
Sukaldari laguntzaileak. Plaza libreak eskolatan, egoitzetan, Eusko Jaurlaritzan. 943 65 01 93 telefonora deitu.

Administrazio laguntzaileak. Laster sarrerak udateke hauean: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendara, Anoeta.

Informazioa doan 943 65 01 93.
Peoiak. Elektrikariak, iturginak, soldatzaleak, igeltzerak. Plaza libreak erakunde publikoetan. 943 65 01 93.

